

Publizitatearen indarra

Sekuentzia honetan gure gizartean gero eta presentzia handiagoa daukaten **publizitate-iragarkiez** arituko gara. Ataza hauek egingo dituzu:

- Galdera ireki batzuei erantzunez, gaiari buruzko iritzia eta zure ezagutzaren berri eman.
- Bideo labur bat entzun ondoren, galderei erantzun, aukera zuzena hautatuta.
- Irratiko publizitate-iragarki mota desberdinak entzunda, bakoitzean erabili den teknika identifikatu.
- **Azken ataza:** euskaltegirako publizitate-iragarkia idatzi.

Zein publizitate-iragarki ezagutzen dituzu?

Gaia aztertzen hasi baino lehen, **publizitate-iragarkiez** duzun **esperientzia ezagutzeko**, beheko galderei erantzungo diezu. Taldean bazaude, komentatu zure albokoarekin.



1. Publizitatea zure ustez eraginkorra da? Kasu egiten diezu iragarkiei?

2. Behean zenbait marka eta iragarki-eslogan dituzu. Hauetaz gain, zein beste iragarki ezagutzen duzu? Zein gustatzen zaizu gehien?

- * Kafe Bake: "Hemen kafeari Bake esaten diogu"
- * BMWa: "Gidatzea gustatzen zaizu? (Te gusta conducir?)"
- * Kutxabanken zeu zara izarra
- * Gorenak: sagardoen euskal selekzioa
- * Euskaltel: "On-line nago"

3. Beheko iragarki-mota horietatik zuri zeinek sortzen dizu inpakturik gehien? Eman arrazoiak (erabiltzen den musikagatik, iragarkia hasteko moduagatik, ematen duen mezuagatik...)

- Mezu soziala duten iragarkiak eta irudi indartsuak dituztenak
 - Istorio osoak kontatzen dituztenak
 - Musika eta irudi indartsuak erabiltzen dituztenak
 - Mezu positiboa eta alaia ematen dutenak....
- Besterik?.....

Publizitate-iragarkien eragina ikusleengan

Teknialik eta EHUK ikerketa bat egin zuten iragarkiek guregan duten eragina aztertzeko, eta zenbait datu bitxi atera dituzte. Ikusi bideoa eta, ondoren, beheko galderei erantzun.

Publizitateak kontsumitzaileengan daukan eraginaz gehiago jakin nahi duzu? Ba, sar zaitez [webgune](#) honetan eta informazio interesgarria aurkituko duzu.



(iragarkiak-aztergai.flv)

1. Ikerketa honetan zer neurtu dute?

- Iragarkien aurrean nola erantzuten dugun emozionalki.
- Iragarkien bitartez transmititzen diren emozioak.
- Iragarkien aurrean hartzen dugun portaera orokorra.

2. Ikerketan parte hartu dutenek zein motatako iragarkiak ikusi dituzte?

- Iragarki sozialak eta erakunde publikoenak.
- Iragarki sozialak eta komertzialak.
- Iragarki informatiboak eta sozialak.

3. Ikerketaren arabera, zein motatako iragarkiek dute inpakturik gehien hartzaileengan?

- Ikuspuntu negatibo batetik kontatzen diren istorioak.
- Emozio ezkorrak pizten dituzten iragarkiak.
- Ikuspuntu baikor batetik egiten diren iragarkiak.

4. Normalean ikusleoi gustatzen al zaizkigu istorio osoak ikusten diren iragarkiak?

- Bai, baina ez luzeegiak.
- Ez, ze istorio osoek emozio kontraerriak sortzen dizkigute.
- Bai, istorio osoak gustatzen zaizkigu, eta datu guztiekin.

5. Baieztapen hauetatik zein da gezurra?

- Ikerketa honetako partehartzaileek iragarki sozialak eta komertzialak ikusi dituzte.
- Ikusleei ez zaie gustatzen istorio osoak ikustea.
- Honelako ikerketa bat lehen aldiz egin da Euskadin.

Iragarkien teknika desberdinak

Publizitate-iragarkiek, gu gonbentzitzeko hainbat baliabide erabiltzen dituzte (musika, irudiak, ematen duten informazioa,...). Bideo honetako lehen bost iragarkiri erreparatuko diezu. Zein baliabide erabili da bakoitzean? Entzun iragarkiak bi aldiz, eta **entzun bitartean**, aukeratu erantzun egokia.

Iragarkiak entzun ondoren: Zein iragarkik sortzen du zure ustez inpakturik handiena?



(iragarkiak_ikasb384488.mp3)

1. Iragarkia. Loreak, egokiena Endanea lorezaintza-zentrora joatea, Gipuzkoako lore saltokirik handiena, aukera zabala, koloretsua, bezeroekin arretatsuak eta prezio paregabeak. Astearteetan gainera % 10eko deskontua landareetan. Endanea, 1 Errepide nazionalan, Hondarribiako golf-zelaiaren ondoan. Erabilitako baliabidea: **(1)**
2. Iragarkia. Zugandik hurbil modarik gutziatuena borbor dabil. Joerek liluratu, koloreek maitemindu eta ehunek seduzitu egingo zaituzte. Denboraldi honetan bihotz-bihotzera helduko zaizu Urbil-eko moda. Urbil merkataritza-gunea, zugandik hurbil. Erabilitako baliabidea: **(2)**
3. Seme maitea, dena eman dizut, egarri izan zarenean edaten eman dizut; gose izan zarenean jan egin duzu, gizaki azkarrena bihurtu zinen, gero ordea egoistena, mindu egiten nauzu eta ezin dut horrela segi, baina badakit egunen batean elkarrekin zoriontsu izango garela berriz, Ama Lurra. Aldaketa klimatikoaren aurrean, kontsumo iraunkorra. Maitatu berriro natura. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza. Erabilitako baliabidea: **(3)**
4. Komunikazio-ikasketak, Mondragon Unibertsitatean. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatura. Komunikatzaileak sortzen ditugu enpresa eta komunikabide-sare zabal baten lankidetzarekin. Erabilitako baliabidea: **(4)**
5. G bitamina zara, gizarte-zerbitzuak, berrikuntza eta azpiegitura garatzen dituzu, baita kirola eta kultura ere, eta gizartearen gabeziak saihesten dituzu. Zure ekarpena bitamina da Gipuzkoarentzat eta zuretzat ere bai. 2007ko errenta apirilaren 18tik ekainaren 25era. Ogasun eta Finantza Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia. Erabilitako baliabidea: **(5)**

Aukerak

- Informazio objektiboa ematen du, produktuari buruzko informazio garrantzitsuena emanez.
- Mezu pertsonalizatua, mezuan hartzailea zuzenean inplikatu nahi du.
- Informazio objektiboa eta hartzailea ekintzara bultzatzeko modukoa ematen du.
- Mezua pertsonalizatu eta emozioekin lotzen da.
- Iragarkiaren azpiko musika eta istoriotxo erabili du hartzailea inplikatzeko.

Zeu sortzaile: idatzi iragarki bat

Ikusi duzunez, publizitate-iragarkiek hizkuntza zehatza eta irudimenez betea erabiltzen dute hartzailea zerbait egitera bultzatzeko. Orain zuri egokituko zaizu iragarki bat idaztea. Izan ere, euskaltegian, jendea euskara ikastera animatzeko, iragarki bat idazteko eskatu dizute. Behean zenbait lagungarri dituzu.

AUKERATU IRUDI BAT



SLOGANAK

- * "Emaiozu euskarari"
- * "Nik maite dut euskara"
- * "Euskara ikastea zeure esku dago"
- * "Euskara ikastea: jokaldirik onena"

ESAPIDEAK EDO ARGUDIOAK

- * Euskara bihotzeraino iritsiko zaizu
- * Ez galdu aukera paregabe hau!
- * Euskara: beti zugandik hurbil
- * Zatoz euskaltegira eta mundu bat aurkituko duzu
- * Helburu guztietarako ikastaroak ditugu.
- * Gure beka-sistemari esker ikastaroa doan ateratzeko aukerarekin



Orain idatzi iragarkia, nahi duzun informazioa emanaz. Gogoratu hartzailea gonbentzitzen saiatu behar duzula. **Eredua ikusi** botoian klikatuta, adibide bat aurkituko duzu.

Zuzenketa-orria

Publizitate-iragarkien eragina ikusleengan

1. Ikerketa honetan zer neurtu dute?

- ✓ Iragarkien aurrean nola erantzuten dugun emozionalki.
- ✗ Iragarkien bitartez transmititzen diren emozioak.
- ✗ Iragarkien aurrean hartzen dugun portaera orokorra.

2. Ikerketan parte hartu dutenek zein motatako iragarkiak ikusi dituzte?

- ✗ Iragarki sozialak eta erakunde publikoenak.
- ✓ Iragarki sozialak eta komertzialak.
- ✗ Iragarki informatiboak eta sozialak.

3. Ikerketaren arabera, zein motatako iragarkiek dute inpakturik gehien hartzaileengan?

- ✓ Ikuspuntu negatibo batetik kontatzen diren istorioak.
- ✗ Emozio ezkorrak pizten dituzten iragarkiak.
- ✗ Ikuspuntu baikor batetik egiten diren iragarkiak.

4. Normalean ikusleoi gustatzen al zaizkigu istorio osoak ikusten diren iragarkiak?

- ✗ Bai, baina ez luzeegiak.
- ✗ Ez, ze istorio osoek emozio kontrajarriak sortzen dizkigute.
- ✓ Bai, istorio osoak gustatzen zaizkigu, eta datu guztiekin.

5. Baieztapen hauetatik zein da gezurra?

- ✗ Ikerketa honetako partehartzaileek iragarki sozialak eta komertzialak ikusi dituzte.
- ✓ Ikusleei ez zaie gustatzen istorio osoak ikustea.
- ✗ Honelako ikerketa bat lehen aldiz egin da Euskadin.

Iragarkien teknika desberdinak

1. Iragarkia. Loreak, egokiena Endanea lorezaintza-zentrora joatea, Gipuzkoako lore saltokirik handiena, aukera zabala, koloretsua, bezeroekin arretatsuak eta prezio paregabeak. Astearteetan gainera % 10eko deskontua landareetan. Endanea, 1 Errepide nazionalan, Hondarribiako golf-zelaiaren ondoan. Erabilitako baliabidea: (Informazio objektiboa eta hartzailea ekintzara bultzatzeko modukoa ematen du.)
2. Iragarkia. Zugandik hurbil modarik gutziateua borbor dabil. Joerek liluratu, koloreek maitemindu eta ehunek seduzitu egingo zaituzte. Denboraldi honetan bihotz-bihotzera helduko zaizu Urbil-eko moda. Urbil merkataritza-gunea, zugandik hurbil. Erabilitako baliabidea: (Mezua pertsonalizatu eta emozioekin lotzen da.)
3. Seme maitea, dena eman dizut, egarri izan zarenean edaten eman dizut; gose izan zarenean jan egin duzu, gizaki azkarrena bihurtu zinen, gero ordea egoistena, mindu egiten nauzu eta ezin dut horrela segi, baina badakit egunen batean elkarrekin zoriontsu izango garela berriz, Ama Lurra. Aldaketa klimatikoaren aurrean, kontsumo iraunkorra. Maitatu berriro natura. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza. Erabilitako baliabidea: (Iragarkiaren azpiko musika eta istoriotxo erabili du hartzailea inplikatzeko.)
4. Komunikazio-ikasketak, Mondragon Unibertsitatean. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatura. Komunikatzaileak sortzen ditugu enpresa eta komunikabide-sare zabal baten lankidetzarekin. Erabilitako baliabidea: (Informazio objektiboa ematen du, produktuari buruzko informazio garrantzitsua emanez.)
5. G bitamina zara, gizarte-zerbitzuak, berrikuntza eta azpiegitura garatzen dituzu, baita kirola eta kultura ere, eta gizartearen gabeziak saihesten dituzu. Zure ekarpena bitamina da Gipuzkoarentzat eta zuretzat ere bai. 2007ko errenta apirilaren 18tik ekainaren 25era. Ogasun eta Finantza Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia. Erabilitako baliabidea: (Mezu pertsonalizatua, mezuan hartzailea zuzenean inplikatu nahi du.)

Zeu sortzaile: idatzi iragarki bat



Orain idatzi iragarkia, nahi duzun informazioa emanez. Gogoratu hartzailea

gonbentzitzen saiatu behar duzula. **Eredua ikusi** botoian klikatuta, adibide bat aurkituko duzu.

(Euskara ikastea zeure esku dago. 100 euskaltegietatik gora zure etxetik gertu. Zeure behar eta helburuetara egokitutako eskaintzak dauzkagu: HEak edo EGA lortzeko, langabetuentzako ikastaroak, euskaraz hitz egiten ikasteko... Zeure kasa ere ikas dezakezu, eta horretarako zure neurria egindako materiala eta ekipamenduak eskainiko dizkizugu. Ez galdu aukera hau eta zatoz euskaltegira. Mundu bat daukazu zain! Izen emateko behean duzun zerrendako edozein euskaltegitan galdetu. UDAL EUSKALTEGIAK)

Transkripzioa

Publizitate-iragarkien eragina ikusleengan

Iragarki luzeek eta ikuspuntu ezkorra dutenek eragiten diete gehien ikusleei. Iragarkien aurrean dugun erantzun emozionala neurtu dute Teknaliak eta Euskal Herriko Unibertsitateak.

Euskal Herriko Unibertsitateak, Teknaliak eta El bureau komunikazio-agentziak publizitateak eragiten dituen emozioak aztertu dituzte. Hogeita hamar ikasleri pulsometroak ipini eta telebista aurrean iragarkiak ikusten jarri dituzte. Iragarki sozialak eta komertzialak ikusi dituzte, mezu baikorrak eta ezkorrak tartean daudelarik. Eta grafikoki azaleratu dute iragarki batek zein momentutan pizten duen emoziorik gehien. Minbizia duten umeen iragarkian, esaterako, neba-arrebak batera agertzen diren unean. Ikerketaren arabera, ikuspuntu ezkor batetik kontatzen diren istorioek inpaktu handiagoa lortzen dute. Besteetan, baina, loteriaren iragarkian, adibidez, irudi argiak eta musika hasten diren unetik aurrera pizten da emozioa.

SERGIO MONGE- Badirudi spot luzeek abantaila batzuk dauzkatela. Istorio osoa nahi dugu ikusi pantailan, datu guztiekin eta ikusleak ez ditu gogoko emozio kontrajarriak. Hartzaileak ez du jakingo oso ondo ze emozio sentitu behar duen.

Lehen aldiz egin da Euskadin iragarkien aurrean dugun erantzun emozionalaren azterketa eta egileak publizitate-agentzien mesederako izango delakoan daude.

Iragarkien teknika desberdinak

Loreak, egokiena Endanea lorezaintza zentrorra joatea, Gipuzkoako lore saltokirik handiena, aukera zabala, koloretsua, bezeroekin arretatsuak eta prezio paregabeak. Astearteetan gainera %10eko deskontua landareetan. Endanea, 1 Errepide nazionalan, Hondarribiako golf zelaiaren ondoan.

Zugandik hurbil modarik gutziazatua borbor dabil. Joerek liluratu, koloreek maitemindu eta ehunek seduzitu egingo zaituzte. Denboraldi honetan bihotz-bihotzera helduko zaizu Urbil-eko moda. Urbil merkataritza gunea, zugandik hurbil.

Seme maitea, dena eman dizut, egarri izan zarenean edaten eman dizut; gose izan zarenean jan egin duzu, gizaki azkarrena bihurtu zinen, gero ordea egoistena, mindu egiten nauzu eta ezin dut horrela segi, baina badakit egunen batean elkarrekin zoriontsu izango garela berriz, Ama Lurra. Aldaketa klimatikoaren aurrean, kontsumo iraunkorra. Maitatu berriro natura. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza.

Komunikazio ikasketak, Mondragon Unibertsitatean. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatura. Komunikatzaileak sortzen ditugu enpresa eta komunikabide sare zabal baten lankidetzarekin. Prestakuntza akademikoa, praktikak eta karrera amaitutako proiektuak. Ikasketak euskaraz. Gaztelania eta ingelesa ere landuko ditugu. Ikus-entzunezko komunikazioa Mondragon Unibertsitateko UEFI Fakultatean, Eskoriatzan.

G bitamina zara, gizarte zerbitzuak, berrikuntza eta azpiegitura garatzen dituzu, baita kirola eta kultura ere, eta gizartearen gabeziak saihesten dituzu. Zure ekarpena bitamina da Gipuzkoarentzat eta zuretzat ere bai. 2007ko errenta apirilaren 18tik ekainaren 25era. Ogasun eta Finantza Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Euskararen Donostia, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak babestuta, euskarazko kultur eta aisialdirako eskaintza. Iparraldea Bertan jardunaldien baitan, antzerkia gaur Koldo Mitxelena. Fafiole Palassiok taularatuko du Michel Azamaren antzezlanaren arratsaldeko zazpi t'erdietan hasita, eta ordubete beranduago, DOKAn, Zirkoa Kabareta, Zirka Zirko taldearen eskutik, akrobatik, dantzariak eta magoak. Euskararen Donostia Patronatuak eskainitako tartea izan da. Donostia, euskararen hiria.

Air System, diseinua eta gozotasuna. Air System, gizon eta emakumeentzako oinetakoak. Okendo, 7, Donostia.

JF Cocinas, kalitate ziurtagiriduna. Diseinuzko altzariak, mahaiak, aulkiak, etxe-tresnak. Eraberritzeak ere gure esku. Betidanik amestu duzu bestelako sukaldea? Bertan aurkituko duzu. JF Cocinas, arreta, profesionaltasuna eta diseinua, dena kalitate onenarekin. Hernanin, Galarretatik aurrera, Ertzaintzaren parean.

FNACen, apirilaren 19tik 27ra, %12ko deskontua "Irudi Digitala 2008" doako gidan agertzen diren argazki kamera digitaletan, horientzako osagarrietan eta bideo-kameretan. FNAC dendetan eta fnac.es webgunean bakarrik.